



Gehituk, Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarteak, Eusko Jaurlaritzak 2006an onura publikoko elkarte izendatu zuenak, 2004an Donostiako hiritar merituaren domina eta 2009an Gipuzkoa Giza Eskubideak saria eskuratu dituenak, ahobatez erabaki du

2015ko ZILARREZKO GEHITU SARIA

EIBAR KIROL ELKARTEARI ematea

Homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia futbol profesionaletik erauzteko eta kirolaren inguruan dabilen edonork bere taldeko nahiz zaleen gaitzespenik gabe armairutik ateratzeko aukera izan dezan, Estatuko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Federazioak martxan jarri eta GEHITUK jarraitutako ORTZADAR LIGARI eskainitako laguntza eta babesarengatik.

Eibar Kirol elkarteak, joan den 2015ko otsailean bat egin zuen kanpaina honekin Athleticen kontra Ipuruan jokaturako derbian. Egun horretarako, bi klubek #EuskalDerbiArcoiris hashtag sortu zuten sare sozialetan kanpaina zabaltzeko, eta horrela, #OrtzadarLiga ekimenarekin bat egiteko. Partida horretan jokalaria guztiak beren kirol-oinetakoetan ostadarraren koloreak erakusten dituen lokarriak erabil zituzten homofobiaren errefusa errotik erakusteko eta diskriminaziorik gabeko kultura berria sortzeko bere konpromisoa azpimarratzeko. Kirol munduaren barruan murgiltzen diren guztiak beren identitate sexuala aske bizi daitezen bai jokalekuetan baita harmailetan ere, estadioak aniztasun sexualaren kontrako diskriminaziorik gabeko uneak izan daitezten.

Elkartzen gaituzten balioak defendatzeko, eta denon artean, mundu hobeaz lortzeko Eibar Kirol Elkarteak beti zabalik izan duen eskua eskertu nahi dugu sari honekin, eta oraindik ere hori egiten jarraitzen duela garbi ikusi dugu Gehituren ekimen berria bultzatzeko bidali diguten gutunean.

Kanpaina berri hau Ortzadar Ligaren luzapen natural bat da, eta futboleko profesionalez gain kirol horretako oinarriak eta zaleak ere inplikatu nahi ditu; kanpaina horretan lokarriak emango zaizkie opari homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia futbol-zelaietatik desagerrarazteko konpromisoa hartzen duten pertsona guztiei, eta eginkizun horretarako urratsa eman duen lehenengo futbol-klub profesionala Eibar Kirol Elkarteak izan da, bere instalazioak utzi dizkigu gu bertan izateko eta benetako berdintasunaren aldeko borroka egiteko kirolaren esparru oinarritzkoen eta hurbilekoen artean.

Lehen mailako futbol-talde asko ematera ausartu ez diren ekimen horretarako laguntzak, garbi eta inolako zalantzarik gabe erakusten du gizaki guztien arteko eskubide-berdintasuna onartzearen alde dagoela Eibar Kirol Elkarteak, pertsona horren sexua, sexu-orientabidea edo genero-nortasuna edozein delarik ere. Horregatik, 2015eko Zilarrezko Gehitu sari hau ematerakoan, gure esker onar azaldu nahi diegu benetan haren talde guztiei eta zuzendaritzari.